

# Berrigara

BERGARA / Egubakoitza / 2005eko azaroaren 25a

649. zenbakia

**HIRIGINTZA/** Bi hilabeteko epea izango da iradokizunak aurkezteko

## Arau subsidiarioen aurrerapena, onartuta

EDU MENDIBIL

Arau subsidiarioen aurrerapena onartu zuen udalbatzak astelehenean. Bergarako lursailen antolaketarako proposamena jasotzen da bertan. Bi hilabeteko epea izango da iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Arau subsidiarioen aurrerapena gobernu taldearen eta Ezker Batuaren aldeko botoekin onartu zuten asteleheneko osoko bilkuran. Esan bezala, Bergarako lursailen antolaketarako irizpideak, helburuak eta konponbideak jasotzen dira dokumentuan.

Orain, bi hilabeteko epea zabalduko da, partikularrek zein elkarteek iradokizunak eta planteamendu ezberdinak aurkeztu ahal izateko.

Hurrengo martitzenean, azaroaren 29an, Xabier Yeregi udal arkitektoak arau subsidiarioen aurrerapenean jasotakoak azalduko ditu osoko bilkuren aretoan, 19:00etan.

### ETXEBIZITZA BERRIAK

Besteak beste, Algodonera San Antonio eta Movillas lantegiak ziren tokian etxebizitzak egitea aurreikusten da. Era berean, San Lorentzon dagoen Tornilleria Debarekin kolaborazio hitzar-

mena sinatu du Udalak. 195 etxebizitza egingo dituzte hantxe, horietatik 39 babes ofizialekoak. Tornilleria Deba lantegia Mekolaldera, Narbaiza zegoen tokira eramango dute.

Mariaren Lagundian ere etxebizitzak egiteko asmoa dago. Toki Ederretik Zabalotegira kale berria egiteko aukera aztertu dute.

Industriarako guneei dagokionez, Murinondotik Mekolaldera tartean 70.000 m2 aurreikusten dira eta San Juan auzoan 350.000 m2. Kukubaso-Ipiñarri inguruan industria poligonoa garatzeko aukera ere aztertzen dihardute.



ARTXIBOA

San Lorentzon 195 etxebizitza egitea aurreikusten da.



### Dei berezia langileei EHNA agiria eskuratzeko

Bai Euskal Herriari ekimena, Udalbiltzak eta ELA, LAB eta ESK sindikatuek lantokietan EHNA agiria sustatzeko kanpaina jarri dute abian. Bihar, zapatua, Euskal Herri-tartasun Nazio Agiria egiteko aukera izango da Irizar jauregian, 11:30etik 13:30era. Eraman beharrekoak hauek dira: hiru argazki, errolda-agiria eta 15 euro behar dira.

### LABUR

#### Nerabeei zuzendutako ekitaldiak izango dira gaur arratsaldean Ipintzako patioan

Kaleko hezitzaileak programaren barne, hainbat ekitaldi izango dira gaur, egubakoitza, Ipintzako patioan, 17:15etik 20:00etara. 11-17 urte bitarteko nerabeei zuzenduta, bizikleta ginkhana, mala-bareak edo perkusio ikastaroa izango dira, besteak beste.

#### 'Gizarte pentsamenduari sarrera' aztergai Herri Eskoletan hurrengo astetik aurrera

Herri Eskolen barruan *Gizarte pentsamenduari sarrera* izango dute aztergai abenduaren 13ra bitartean. Azaroaren 29an *Kapitalismoaren oinarriak* eta abenduaren 1ean *Sozialismoak* hitzaldiak izango dira kultura etxean, 19:00etan. Izenematea: [herrieskolak@euskalerrria.org](mailto:herrieskolak@euskalerrria.org) helbidean edo 695 72 64 94 telefono zenbakian.

## AMODIOZKO GUTUNEN XIV. BERRIGARA LEHIAKETA

SMS Bidezko IV. Maitasun Mezuen Lehiaketa

Antolatzailea

Laguntzaileak



### Oinarriak:

#### Amodiozko gutunen XIV. Lehiaketa

- Adina: 15 urtetik gorakoendako
- Lanak: jatorrizkoak, argitaragabeak eta euskarazkoak, originala eta hiru kopia bidali behar dira.
- Epea: urtarrilaren 5era arte
- Nora bidali: Jardun elkarte, Errotalde jauregia z/g, 20570 Bergara edo e-posta: [kulturajardun@topagunea.com](mailto:kulturajardun@topagunea.com)

#### SMS bidezko IV. Maitasun Mezuen Lehiaketa

- Pertsona bakoitzak mezu bakarra bidal dezake
- Mezuak jatorrizkoak eta euskaraz
- Epea: urtarrilaren 1etik 15era
- Nora bidali: 605 71 24 69 edo [kulturajardun@topagunea.com](mailto:kulturajardun@topagunea.com)

**EUSKARA/** Abenduaren 3an ospatuko den Euskararen Egunaren barruan egingo diete omenaldia

# 1960ko hamarkadan euskara irakasten aritu ziren emakumeak omenduko dituzte

EDU MENDIBIL

Abenduaren 3an ospatuko den Euskararen Egunaren barruan, 1960ko hamarkadan euskara ikasten aritu ziren hamaika emakume omenduko dituzte. AEK, EHE eta Jardun elkarteak astelehenean eman zuten hurrengo asteko ekitaldien berri.

Euskararen irakaskuntzan aitzindari izan ziren Bergarako hamaika emakume omenduko dituzte hurrengo zapatuan, abenduaren 3an. Hain zuzen ere, 1960ko hamarkadaren bukaeran Colegio Santa Infancian (Bidekurutzetan eta Mizpildin), Koldo Eleizalde ikastolan (Komenio kalean) eta Frontoiko eskolan ibilitako Pilare Mujika, Maite Agirrebeña, Izaskun Jimeno, Edurne Arzelus, Lide Mujika, Maria Victoria Arizmendi, Lupe Olabarria, Mariasun Lete, Amaia Azkargorta, Pili Fernandez eta Kontxita Maiztegi zena izango dira omendutakoak.

**HERRITARREN KONPROMISOA**

Jardunek, AEK eta EHEk programa zabalatu dute hurrengo astebururako. Egubakoitzean, abenduaren 2an, herriko ikasleek marrazki edo mezu bidez galdera honi erantzun ahal izango diote Munibe plazan: Euskarak egun bakarra al du? Euskal karaokea izango da ondoren, 17:15ean. Gauean, berriz, antzer-



Irene Murgiondo (AEK), Jon Unamuno (Jardun) eta Iñigo Arregik (EHE) aurkeztu zituzten Euskararen Eguneko ekitaldiak.

ki emanaldiak izango dira Pol-Polen eta Oilagorra tabernan.

Euskararen Egunean, berriz, hainbat herritarrek hartu dituzten konpromisoen berri emango dute. Irene Murgiondo AEK ordezkariak zera esan zuen astelehe-

nean: "Eguneroko gauzak euskaraz egin ahal izateko kontzientzia hartu behar dugu. Herriko euskaltzale guztiak bildu eta aktibo bilakatu nahi dituen gune bat sortu nahi dugu, helburu egingarriak eta lorgarriak finkatuz".

**HERRI BAZKARIA ABENDUAREN 3AN**

Euskararen Eguna ospatzeko herri bazkaria izango da Artatsen, bertsolariak eta trikitilariak izango direlarik. Txartelak Jardun elkartearen, Errotalde jauregian eskura daitezke.

**LABUR**

**Interneti buruzko mintegia abenduaren 1ean**

*Bilatu eta aurkitu: nola bilatu Interneten mintegia izango da abenduaren 1ean 18:00etan, Miguel Altunan, Miramon Enpresa Digitalaren eskutik. Mintegia doakoa izango da. Argibideak: 943 74 73 14.*

**Euskara ikasten hasteko ikastaroa antolatu dute**

Euskara ikasten hasteko 60 orduko ikastaro berezi bat antolatu dute Udalak eta Udal Euskaltegiak. 60 orduko ikastaroa izango da eta eskolako abenduko hirugarren astean hasiko dira. Besteak beste, etorkinei zuzendutako ikastaroa da. Izenematea azaroaren 30era arte zabalik dago. Argibideak: 943 76 44 53.

**Zeinuen hizkuntza ikastaroa urtarrietik aurrera**

Udaleko Gizarte Ongizate sailaren laguntzarekin, gorrikin komunikazio ahalmenak hobetu nahi dituztenendako zeinuen hizkuntza ikastaroa antolatu du Aransgik. Ikastaroa (30 ordukoa) Bergarako Aransgi ikastetxean izango da, urtarrietik aurrera. Argibideak 943 76 27 03 telefono zenbakian.

## Likidazio osoa MARGA jantzi-dendan

Azaroaren 25etik aurrera **%30** eta **%50**



San Pedro 20  
**BERGARA**  
Tel.: 943 76 05 37

ELKARRIZKETA

ORBAIZ FORMOSO/ MIZPIRUALDE EGOITZAKO ANIMAZIO ARDURADUNA

# “Familia eta lagunaren bisitak, laguntza sentibera jasotzea oso inportantea da egoiliarrentzat”

EDU MENDIBIL

**M**izpirualde Egoitzaren Asteko ekitaldiak amaituko dira bihar, zapatua. Hango giroa bizitzeko asmoz, egoiliarrei zuzendutako ekintzak izan dituzte egunotan. Joan den urteko azarotik Orbaiz Formoso eibartar psikologoa (28 urte) dabil egoitzako animazio arduradun gisa.

### Zein da zure zeregin nagusia Mizpirualden?

Egoiliarren balorazioa egitea eta aisialdiko ekitaldiak antolatzeko. Jarduera irekiak antolatzen ditugu egoiliarrendako: eskulana, joskintza, gimnasia... Bestalde, ostegunero, jokoak, diapositiba emanaldiak, bingoa eta horrelakoak egiten ditugu eta hilean behin, berriz, hilabete horretan urteak bete dituztenen omenez festatxo bat antolatzen dugu. Orokorrean egoiliarrek jarrera oso positiboa erakusten dute: batez beste 60 lagun inguruk hartzen dute parte ekitaldiotan. Proportzio handia da, kontuan izanik egoiliarren kopuru handi bat gaixo dagoela.

### Zein da egoiliarren batez besteko adina?

81 urtekoa. Horietatik %62 emakumeak dira eta %38 gizonak. Egoiliarren %24 autonomia dela

esan daiteke, bere kabuz moldatzen dira. Baina demenzia kasu dezente daude. Estimulazio kognitiboko terapiari garrantzi handia ematen diogu. Batzuen eta beste egoera kontuan hartuta, prebentzio lana egiten dugu autonomia daukatenekin eta narriadura kognitiboa sufritzen dutenekin berriz, narriadura hori ahal den astiroago galtzea da helburu nagusia.

### Zeintzuk dira egoiliarren behar nagusiak zure ustez?

Familiarren eta lagunaren bisitak beharbadak. Bisita horiek oso inportanteak dira beraiarentzat. Azken baten etxetik egoitzara etorri dira egoiliarrek eta familiarren eta lagunaren falta nabaritzen dute gehien. Horregatik da hain garrantzitsua laguntza sentibera jasotzea. Hemen egin ditza kegun ekintzak bezain garrantzitsuagoak dira bisita horiek. Egoitzako langileon partetik ere laguntza hori jasotzea biziki eskertzen dute egoiliarrek: irribarre bat, animuak, egun on alai bat entzutea...

### Boluntario talde bat ere badabil zuekin lanean...

Bai, eta benetan eskertzekoa egiten duten lana. Antzuola, Elgeta eta Bergarako 20 bat lagun dabilta (gizon bakarra dago) eta hiru mailatan ematen dute laguntza: mezetan laguntzen, ekintzak



“Egoitzan animazioa sortzea da Mizpirualdeko Astearen helburuetako bat”

zehir hainbat ekitaldi izango ditugu eta bihar, zapatua, amaituko dira ospakizunak. Meza, Alai Taldearen emanaldia eta bazkaria izango ditugu, besteakbeste. **Aurretik Eibarren lanean ibilitakoa zara. Badago diferentziarik hango eta hemengo egoitzen artean?**

San Andres egoitza ere eza gutzen dut. Funtzionamenduari dagokionez, oso antzekoak dira Eibarkoak eta Mizpirualde. Bestalde, ISP 9001-2000 kalitate ziurtagiriarekin oso ondo zehaztuta daukagu gure lan egiteko modua. Egoera onean da Mizpirualde alde horretatik.

Nobedade gisa, urtarrilean kultura eta irakurketa aretoa jarriko dugu martxan, Bergarako Udal Liburutegiarekin elkarlanean. Hain zuzen ere, egoiliarren artean irakurketa eta eztabaida sortzea da helburuetako bat.

aurrera ateratzen edo egoiliarrei konpainia egiten. Beti daude laguntzeko gertu eta horrek ez dauka ordainik.

### Zein izaten da Mizpirualdeko Astearen helburua?

Animazioa sortu eta harremanak bultzatu, egoiliarrek mugimendua ikus dezatela, modu ludiko eta pozgarrian. Herriko hainbat talde ere inplikatzeko dira eta aberasgarria da hori. Astean

**KABIA ERRETEGIA**

Orain asteleheneretik larunbatera zabalik

- Eguneko menua
- Plater konbinatuak
- Ogitaratekoak
- Asteburuetan bazkariak eta afariak

Zubiaurre 23 Tel.: 943 76 23 08

**GARRAIOAK ANDUZU TRANSPORTES**

BERGARA  
607 349 043

**Grua zerbitzua**  
Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak

**EDEL TAPIZ DENDA**

*Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena*

**Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoak, etab.**

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

**Bidekurutzeta 14 BERGARA**

**JOXAN**  
ARRAINDEGIA

Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

**TELEIXA BILTEGIAK**


**Eraikuntza materialak**

Telleria (Labegaraieta)  
BERGARA  
Tel.: 943 76 27 93

**MP Silvestre Muñoz, s.l. pinturak**

Pintura-lanak orokorrean  
•  
Pintura industrialak  
•  
Zoru arinak: sintasolak, moketak...

610 25 99 82  
610 25 40 37  
943 76 24 11  
Amillaga 1, 10 pabilioia.  
20570 BERGARA



JAVIER P. FDEZ. FERRERAS

XV. Kirol Argazkien Lehiaketan 100 m. libres lanak jaso du bigarren saria zuri-beltzean.



JUANJO LOPEZ

Koloretako kategorian Juanjo Lopez izan da Bergarako onena, Pesca izenburuko lanari esker.

LEHIAKETA/ Julian Redondo eta Javier P. Fdez. Ferreras izan dira aurtengo irabazleak

## Kiroletako argazkiak kultura etxean ikusgai

EDU MENDIBIL

Julian Redondo eta Javier P. Fdez. Ferreras izan dira XV. Kirol Argazki Lehiaketako irabazleak. Agustin Gurrutxaga eta Juanjo Lopez izan dira herriko onenak, zuri-beltzean eta koloretan, hurrenez hurren.

Inoiz baino partaidetza handiagoa izan da Udaleko Kirol Zerbitzuak eta Pol-Pol Argazki Taldeak antolatutako lehiaketan: 136

argazki jaso dituzte aurtan, 90 koloretako kategorian eta 46 zuri-beltzekoan.

Julian Redondo bilbotarrak eraman du lehen saria zuri-beltzean, *El músculo* lanari esker. Bigarren saria Javier P. Fdez. Ferrerases irabazi du, *100 m libres* lanarekin, eta hirugarren saria Iñaki Kaperotxipi zarautzarrak eskuratu du, *Uretara* izenburuko lanari esker. Zuri-beltzeko kategorian Agustin Gurrutxaga izan da herriko onena, *Unai* lanarekin.

**ERAKUSKETA ABENDUAREN 4RA ARTE**  
Koloretan, berriz, Javier P. Fdez. Ferrerasentzat izan da lehen saria, *A 30 metros* lanagatik; bigarrena Josu Altzelai legazpiarrak eraman du *Irteera* argazkiari esker eta hirugarrena Iñaki Barace donostiarrak, *Marathon* lanarekin. Juanjo Lopez izan da herriko onena, *Pesca* argazkiagatik.

Sari banaketa abenduaren 2an egingo dute kultura etxean, 20:00etan. Gaurtik abenduaren 4ra erakusketa izango da bertan.

### LABUR

#### Bergara KEko eskubaloit taldeek etxeko lau partidu jokatu dituzte asteburuan

Bergara KEko eskubaloit taldeen partiduak izango dira aste bukatuaren Labegarietako kiroldegian: bihar, zapatua, gazte mailako mutilen taldeak Ormaiztegiren aurka jokatu du, 16:15ean; ondoren, gazte mailako nesken taldeak Gasteizko Ehariak taldea hartu du, 17:45ean. Domekan, berriz, infantil mailako mutilen taldeak Oñatiko Araorazaren aurka jokatu du, 10:45ean; senior mailako mutilen taldeak Aloña hartu du, 12:15ean. Azken hau partidu garrantzitsua izango da bi taldeentzat. Oñatiarrak eta bergararren arteko derbiak ikusmina piztu du.

#### Dirulaguntza eskaera urtea amaitu baino lehen egin beharko dute kirol elkarteek

Udal Kirol Zerbitzuak aditzera eman duenez, kirol elkarteek abenduaren 31ra arte daukate 2005eko dirulaguntzen 2.zatia jaso ahal izateko agiriak entregatzeko epea. Era berean, 2006rako dirulaguntzen eskaera urtea amaitu baino lehen egin beharko dute. Argibideak 943 77 91 67 telefono zenbakian.

#### Eski eta mendi materialaren azoka txikia zabalduko dute astelehenean Pol-Polen

Eski eta mendi materialaren azoka txikia egingo dute Pol-Polen azaroaren 28tik abenduaren 3ra. Astelehenean egubakoitzera 19:00etatik 20:30era izango da zabalik eta zapatuetan 18:00etatik 20:00etara.

#### Bergara Txirrindulari Elkarteak urteko batzarra eta afaria izango dituzte bihar

Begarako Txirrindulari Elkarteak urteko batzarra egingo du bihar, zapatua, azaroak 26. Zuloa elkartearen izango da, 20:00etan. Ondoren, afaria egingo dute Zumelaga jatetxean. Afarirako izenematea Igartua bizikleta dendan egin daiteke.

#### Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketako partiduak gaur Udal Pilotalekuan

Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketako partiduak izango dira gaur, egubakoitza, Udal Pilotalekuan, 19:15ean.

Lau partidu jokatu dira gaurko jardunaldian: kadete mailan, Jon Perezek eta Aritz Rezustak Lagunak taldearen aurka jokatu dute; bigarren gazte mailan, Andoni Elortzak eta Ibon Berraondok Andazpe taldeko bikotea izango dute aurrez aurre; lehen gazte mailan, Oier Aldai eta Jon Larrañaga Lizardi taldekoen aurka arituko dira eta, azkenik, senior mailan, bannaka, Beñat Iñarra bergararrak Azpeitiko Ilunpe taldeko ordezkariaren aurka jokatu du. Gazte mailan, Oier

Aldaik eta Jon Larrañagak finalerdietarako txartela eskuratu dute dagoeneko.

**SANTOS**



**Etxetresna elektrikoak eta argiztapena**

Masterreka 2. BERGARA  
Tel.: 943 76 26 10

**IRURAK MARGOAK**  
DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak	Paper pintatuak
Moketa eta sintasola	Harea zorrotada
Iztuku esponjatua	Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara  
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984  
Faxa: 943 76 09 32

**JAUJA KIROLAK**

Irizar 2. BERGARA  
943 76 14 95

**POL-POL**  
Taberna

943 76 07 78. Bergara



GOIENKARIA

Bergarak hiru partidu irabazi ditu orain arte. Abel Maestre eta Markel Egaña dira taldeko entrenatzaileak.

**FUTBOLA/** Ohorezko gazte mailako Bergarako taldea sailkapenean 15. tokian dago

## Bergara-Hondarribia gazte mailako partidua bihar

E.M.

Ohorezko gazte mailako futbol taldeak Hondarribia hartuko du bihar, zapatua, Ipintzan. Joan den zapatuan Zarautzen 0-0 egin ondoren, mahoneroak sailkapenean 15. tokian daude. Eta hala, bihar laugarren partidua irabaztea da etxekoen asmoa.

Iaz mailaz igo ondoren, ohorezko gazte mailan dabil Bergara. Abel Maestrek eta Markel Egañak zuzendutako taldeak hamaika partidu jokatu ditu orain arte: sei

partidu berdindu, hiru irabazi eta beste bi berdindu egin dituzte.


Sailkapenean 15. tokian dago Bergara. Bihar bisitari izango duten Hondarribia taldea 9. tokian dago, 19 punturekin.

Abel Maestrek zera esan digu: "Helburua mailari eustea izango da. Berdintasun handia dago talde guztien artean; ea goraka egingen dugun... Ate aurrean finago ibili beharko dugu. Etxeko hainbat partidutan ez dugu zortzerik izan: 3. tokian dagoen Vasconia bi aldiz heldu zen gure areara eta bitan asmatu zuten; 0-2 galdu genuen..."

Talde nagusirako jokalaria ateratzea da helburuetako bat: Iker Arazkonaga, Martin Ibañez eta Andoni Nafarrete erregional mailako taldearekin ari dira.

### BESTE HIRU PARTIDU IPINTZAN

Aste bukaeran beste hiru partidu jokatu dira Ipintzako zelaian: bigarren kadete mailako taldeak Eibartarrak taldearen aurka jokatu du zapatuan, 11:30ean. Domekan, lehen infantil mailako taldeak Zumaiako hartuko du, 11:30ean, eta senior mailako neskek, berriz, Elgoibarren kontra jokatu dute, 16:00etan.



### Gantxegi eta Gonzalez, onekin batera

Jon Gantxegi eta Jon Gonzalez bergarar gazteek parte hartu zuten domekan Artxandan (Bilbon) jokaturako Euskadiko Karate Txapelketan. Shotokan taldeko Gonzalez (eskuman) bigarren geratu zen 70 kg-tik beherakoen artean, gazte mailan; kadete mailan, berriz, Giartzu gimnasioko Gantxegik (ezkerrean) 3. postua lortu zuen 80 kg-tik beherakoen artean.

### LABEGARAIETAKO FUTBITOTXAPELKETA

#### ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

##### DOMEKAN, BARRUAN

16:00: Errotagain-Makanaki. Agirrebeña  
17:00: Mongatxurra-Aguirrebeña. Irubide

18:00: Fit Automo.-Irubide. Kalaveras  
19:00: Kalaveras-All Blacks. Pirulotarrak  
20:00: Pirulotarrak-Niu Tim. All Blacks

**OHARRA:** Antolatzaileek aditzera eman dutenez, abenduko lehenbiziko aste bukaeran jokatzetik ez duten taldeek abisua eman beharko dute.

## ETXE BERRIA

### ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65

## BERGARA MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Urarte 8 BERGARA  
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47  
Faxa: 943 76 04 77



Urteaga 9  
BERGARA  
Tf. 943 76 18 45

## REMENTERIA

Altzariak

Egongelak  
Logelak  
Aukera guztiak  
Enkarguan

Artekalea, 6  
BERGARA  
943 76 13 29

## Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi  
BERGARA

## Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6  
BERGARA  
Tel.: 943 76 56 62

## FRONTOI




TABERNA

Fraiskozuri z/g.  
BERGARA  
943 76 05 09

## ZABALA

JATETXEA • OSTATUA



Labegaraieta, Ibarra 14  
BERGARA.  
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura



BERRIGARA

Valtierrako Udal Musika Banda 75 lagunek osatzen dute; Jose Antonio Morella da zuzendaria.

**MUSIKA/** Santa Zezilia eguneko ospakizunak

## Valtierrako Musika Bandaren kontzertua domekan

IRATI AGIRREAZALDEGI

Musikarien zaindaria Santa Zeziliaren eguna azaroaren 22an izan zen. Aurreko asteburuko ospakizunen ostean, musikariek asteburu honetan ere jardungo dute. Gaur, ibarreko musika eskoletako ikasleen txanda da; domekan, Valtierra Bandarena.

Domekan, azaroaren 27an, Valtierra (Nafarroa) Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du Udal Pilotalekuan, 18:30ean.

1990ean sortutako musika banda horrek 75 musikari inguru ditu gaur egun. Banda gaztea da oso, partaide gehienak 11 eta 25 urte bitartekoak baitira.

Valtierrako Bandak hainbat emanaldi egin ditu urteotan, bai Nafarroan barrena eta baita beste zenbait lekutan ere.

Horrez gainera, Virgen de Nieva abesbatzarekin batera *Cien ilusiones* CDa grabatu zuten 1997an.

Bere ibilbidean Bergaran egingo du geldiunea Valtierra

Bandak domekan eta Jose Antonio Morella Rodrigoren zuzendaritzapean bederatzi pieza eskainiko dizkiete Bergarako musikazaleei. Izan ere, euren helburua da "lanean jarraitzea Bandak maila hobea lortzeko eta gozatzeko zein entzuleak gozarazteko izpiritua adierazle gorenetakoa den musikarekin".

### DEBAGOIENKO MUSIKA ESKOLAK

Bestalde, ibarreko hainbat musika eskolak, Sorluzekoarekin batera, emanaldia eskainiko dute Ber-

garan. Ikuskizuna abenduaren 2an, egubakoitza, 18:30ean izango da, Udal Pilotalekuan. Arrasate, Bergara, Oñati, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Sorluzeko ordezkariek hartuko dute parte. Antolatzaileen esanetan, emanaldia askotarikoa izango da: musika tresna askoren erakustaldia egingo duten musikariez gain, dantzariak ere jardungo dute.

Bai Bandaren kontzerturako sarrerek eta baita musika eskolen jaialdirako sarrerek bi euro balio dute.

## Egitaraua

<i>Gloria al pueblo</i> .....	P. Artola
<i>Dancing show</i> .....	Josef Hastreiter
<i>Las playas de Rio</i> .....	Kees Vlak
<i>Imagine</i> .....	John Lennon
<i>Robin Hood</i> .....	Michael Kamen
<i>Cielito lindo</i> .....	Naohiro Iwai
<i>From the new world</i> .....	Anton Dvorak
<i>Am Golf Von México</i> .....	Kornmeier
<i>Charleston forever</i> .....	M. Peter

## LABUR

### Ondarroako Tunnel 483 bikotearen kontzertua gaur gauean Ziripot tabernan

Danel Eizagirre eta Nesta Landaribar ondarrutarren Tunnel 483 taldeak kontzertua eskainiko du gaur, egubakoitza, Ziripot tabernan, 23:00etan. Gitarra eta ahotsa uztartzen dituzte eta ingelesez abesten dute. Besteak beste, taldearen izen bereko maketako doinuak eskainiko dituzte. Euren ostean, KRC disko-jartzaileak jardungo du. Bestalde, Unai Azkarateren koadroak izango dira ikusgai Ziripoten abenduaren 16ra bitartean.

### Ska doinuak eskainiko dituzte New Yorkeko eta Bostongo bi taldek bihar Jam aretoan

Bi musika taldek emanaldia eskainiko dute bihar, zapatua, Jam aretoan. New Yorketik dator The Toasters taldea eta ska musika egiten dute. Haize-instrumentuekin musikari bikainek jardungo dute eta ahotsa Bucket kantariak ipiniko du. Reggae, jazz, rock eta ska doinuak uztartuko dituzte. Eurekin jardungo dute Bostongo Westbound Train taldekoek, eta haiek ska eta soul doinuak eskainiko dituzte. Kontzertua 22:00etan hasiko da.

### Hardrock musika bihar gauean gaztetxean Nra eta Rotten Teenagers taldeen eskutik

Gaztetxean kontzertua izango da bihar, zapatua, 22:30ean. Amsterdango Nra taldeak jardungo du. Boskote horrek hardcore musika egiten du eta *Machine* azken lana aurkeztuko dute; kontzertuetako ohiko abestiak ere ez dira faltako. Bestalde, Bergarako Rotten Teenagers-koak entzuteko aukera ere egongo da.

### Oñatiko Kultura Etxean ikus daitezke Jon Balentziagaren koadroak eta eskulturak

Jon Balentziaga artista bergararrak eskulturak eta margolanak ipini ditu ikusgai Oñatiko Kultura Etxean. Erakusketa 25 koadro eta zortzi eskultura egongo dira. Margolanetan paisaiak, nekazarien eta artzainen lanak... islatu ditu; eskulturak, berriz, giza irudia eta abstraktuak. Lanak domekara arte, azaroaren 27ra arte, egongo dira ikusgai, 18:30etik 20:30era bitartean.

### Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalerako bi sarrera zozketatuko ditu Jardun elkarteak

Jardun euskara elkartearen Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiaren finalerako sarrerak daude salgai 25 eurotan. Bertara autobusez joateko eta bazkaritarako txartelak ere eskuratu daitezke. Bestalde, Jardun elkarteak finalerako bi sarrera zozketatuko ditu. Zozketan parte hartzeko argibideak [www.jardun.net](http://www.jardun.net) webgunean daude.

### Mexikoko mugimendu zapatistaren gaineko irratsaioak datorren astean Txapa irratian

Begiak Zabalik kolektiboak Mexikoko mugimendu zapatistaren berri emateko kanpaina egiten dihardu. Txapa irratian bi saio berezi egingo dituzte gai horren gainean: azaroaren 30ean Marcos komandanteari egindako elkarrizketa izango da, 20:00etan; hurrengo egunean, ordu berean, berriz, *Sexta declaracion de la selva Lacandona* delakoa. Bestalde, abenduaren 4an, bideo emanaldia eta hitzaldia egingo dituzte kolektiboko kideek gaztetxean 19:00etan.

# OGIZUN

koop. elk.  
okindegia



Ibargarai 44-46  
BERGARA  
943 76 45 53

Zubillaga 10  
OÑATI  
943 78 24 13

## Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak  
sintasola - moketak - gotelea  
pintura industrialak

Errekalde auzoa 5, 1.a  
ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 62 02 /  
666 517 295

# AZPEITXI

Jatetxea

Aranerreka 13 behea. Bergara  
943 76 55 00



Opel. Ideia berriak. Auto hobekak.

## Opel Zafira berria

Malgutasuna ez da inoiz horren dibertigarria izan



Euro NCAP "5 izar" goreneko kalifikazioa pertsona nagusien babesean.

Opel Zafira berria heldu da diseinu ikusgarriarekin.

Kirol-automobila, kristalezko sabai zoragarriarekin. Flex7 sistemarekin, zazpi jarleku dituen, zuk nahi dituzun konbinazio guztiak egiteko. Zafira berriak, gainera, puntako teknologia dauka ondorengo motorretan: CDTI 150 ZPraino eta ECOTEC gasolinazko motorretan 240 ZPraino. SAFETEC segurtasun sistemari esker, errepidean lasai ibil zaitezke. Segurtasun sistemak ondorengoak ditu barne: EDS xasisa eta egokitutako AFL faroak.

Opel Zafira berria. Malgutasunaz disfrutatzeke.

[www.nuevozafira.com.es](http://www.nuevozafira.com.es)

Zafira gama: Kontsumo mistoa (l/100km) 6,1etik 9,5era. Emisioa: CO2 (gr/km) 165etik 228ra.


**GMAC FINANCIAL SERVICES**

### Giauto

Olaso 25. Elgoibar  
Otaola etorbidea 29. Eibar  
Olabarrena auzoa z/g. Bergara  
San Andres auzoa 10D. Arrasate  
Yurre auzoa, Karobi Pol. Z/g. Olaberria  
Bentalde pol. 3. Anoeta-Tolosa

**BONOFOTOA**

Zein da XVI. mendeko etxe-dorre honen izena eta zein da ate gainean ageri den etxeiko ikurritzaren (*Soli deo honor et...*) azken hitza?



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR



Super BM emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

**MARIA PILAR LARRAÑAGA**rendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Maria Pilar! Galderaren erantzun zuzena: **Mariaren Lagundian.**



BONOFOTOKO GALDERAREN ERANTZUNA: .....

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

**La Gula del Norte**  
200 g-ko bandeja

**4,60€**

665 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



**ERRETRATUZAHARRA**

BERGARA


**Pilota harrobiko gaztetxoak**

**B**ergara KEko pilota saila omendu berri dute. Reyesek eta konpainiak urtetan egindako lanaren errekonozimendua jaso zuten hilaren 12an.

Gaztetxo ugari igaro da pilota sailetik. Horren lekuko, argazkiko taldea. Argazkia 1992. urte ingurukoa da. Ezkerretik eskumara, zutik: Gorka Martin, Arkaitz Arexolaleiba, Ander Mugurutza, Unai Iñarra (atzerago), Ibai Redondo, Iker Zabaleta (altuena), Andoni Arrieta, Iñigo Zabaleta eta Arkaitz Ruiz de Loizaga.

Makurtuta: Asier Bolinaga, Beñat Iñarra, Julen Aranburu, Markel Lete eta Ander Murrumendiaraz.

Argazkia: Berrigara



**ADI, IRAKURLE!**

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33), Elgetako kultura etxera edo Oñatiko Laixanera. Zain gaituzu!

**FARMAZIENTXANDA**

- EGUBAKOITZA, 25**  
GUALLAR, San Antonio 5 . 943 76 11 05
- ZAPATUA, 26**  
ESTELLA, Matxiategi 5 . . . 943 76 19 63
- DOMEKA, 27**  
ESTELLA, Matxiategi 5 . . . 943 76 19 63
- ASTELEHENA, 28**  
MOZOS, Iparragirre 2 . . . 943 76 12 15
- MARTITZENA, 29**  
CAMACHO, Oxirondo 4 . . . 943 76 11 74
- EGUAZTENA, 30**  
ZABALA, Barrenkalea 25 . . 943 76 16 87
- EGUENA, 1**  
GUALLAR, San Antonio 5 . 943 76 11 05

**TELEFONOAK**

**OSASUNA / LARRIALDIK**

- Anbulatorioa (txanda) . . . 943 03 54 00
- Bergarako Udaltzaingoa . 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa . 943 76 62 46
- Ertzaintza . . . . . 943 53 47 20
- Osasun etxea . . . . . 943 76 24 40
- Asepeyo . . . . . 943 76 16 43
- Pakea . . . . . 943 76 13 49
- Angiozarko medikua . . . 943 78 90 27
- Antzuolako medikua . . . 943 76 62 23
- Odol emaleak . . . . . 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak . . 943 76 51 06

**GARRAIOAK**

- Taxiak . . . . . 943 76 19 50

**UDALA**

- Bergarako Udaletxea . . . 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea . . 943 76 62 46
- Udal Artxiboa . . . . . 943 77 91 32
- Igerilekuak . . . . . 943 76 20 51
- Kultura etxea . . . . . 943 77 91 58
- Liburutegia . . . . . 943 77 91 62
- Kiroldegia . . . . . 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza . . . 943 76 13 68

**BESTELAKOAK**

- Epaitegia . . . . . 943 76 14 92
- Erregistroa . . . . . 943 76 13 15
- Jardun . . . . . 943 76 36 61
- Postetxea . . . . . 943 76 26 85
- Bedelkar . . . . . 943 76 04 68
- Akulu AEK . . . . . 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia . . . . . 943 76 44 53
- Bergarako notariotza . . . 943 76 10 73

**MEZAK**

**URTE-MEZAK**

- Santa Marina**  
Hileko bigarren domekan, 10:30ean eta 13:00etan.
- San Pedro**  
Hileko hirugarren domekan, 09:30ean eta 12:30ean.

**URBANOAK**

- San Lorenzo/San Juandik irteerak**  
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
- GERALEKUAK:** San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluez aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
- Labegarieta/Olabarrenetik irteerak**  
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
- GERALEKUAK:** Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.




## ATREBENTZIAEZPADA/ Zer iruditzen zaizu dendetan Gabonetako gauzak hain azkar ipintzea?



DOMINGA PEREZ



JUANJO FERNANDEZ



JESUS MARI LARRAÑAGA



JUSTI LARRAÑAGA



MARGA TXURRUKA



LORETO LALINDE

Ongi iruditzen zait. Gainera, aukera aprobetxatu behar da erosketak egiteko. Dena Gabonetarako utziz gero, soldata guztia erosketetan joango litzaguke, egun horietan prezioek beti egiten dute-eta gora.

Nik ez diet kasu handirik egiten promozioei; beraz, ez zait axola aurreratzea. Erosketa gutxi egiten ditut eta gehienak azken orduan. Ez dut uste propagandak askorik eragiten duenik nigan.

Marketin hutsa da. Jendeak begietatik sartzen zaiona erosten du; beraz, horrenbeste aurreratzeak arrazoi ekonomikoa besterik ez du. Gurean ere zenbait produktu aurrez erosten ditugu.

Gabonak tontokeria gutxiagorekin pasa izan ditugu urtetan, giro sanoagoan, horrenbeste paper eta propagandarik gabe. Papere-tan gastatzen dena goseak daudenei ematea askok hobe litzateke.

Ongi iruditzen zait Gabonetako gauzak aurreratzea eta dendetan Gabonetarako egokiak diren produktuak ipintzea. Nik neuk hainbat erosketa Gabonak heldu baino lehen egiten ditut, denbora aurrezteko.

Gaizki iruditzen zait; bezeroak engainatzeko bidea dela uste dut. Iazko produktu batzuk saltzen dizkigute Gabonak baino lehen. Hala ere, gurean erosten ditugu gauza batzuk aurrez.

## TXALOAKETATXISTUAK



**TXISTUAK ESPALOIKO LAUZAK** Irakurle batek deitu digu esanez Irizar kalean-espaloietan hainbat lauza apurtuta daudela. "Lehenago astean botatako euri zaparraden ondorioz ura pilatu zen lauzen azpian eta zapalduz gero hankak bustitzeko arriskua dago. Beraz, apurtutakoak aldatu egin beharko litzukete", esan digu. /I.A.

## BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Traza"



—Traza txarra artzen dotsat asunto oni.

JON IRAEGI

## BESTEKEKESANA




Auzipetu bakoitzak era ezberdinean bizi izan du eta bizitzen ari da eraso, zalantzarik gabe, ezinezkoa zait

hori guztia islatzea. Hala ere, badira guztiok komunean ditugunak, atxilotuta eta inkomunikazioa pairatu ditugu, espetxea; ehunka milaka euroko bermeak oraindik Auzitegi Nazionalaren sakelan daude (non izango dituzte inbertituta?), egunero, astero edo hamabostero epaitegi edo polizia etxeetan sinatzera behartzen gaituzte, Espainiako estatutik ezin dugu atera (gure herrian libre ibiltzeko eskubiderik ere ez dugu)..., ehunka euskal herritarren antzera, Espainiaren eta Frantziaren jazarpena pairatu dugu eta pairatzen ari gara.

**IÑIGO ELKORO / 18/98 sumarioan auzipetua 'Berria'/05-11-18**

## BERAIEKDIÑOÈ/ Iñigo Garitano



207.000

Irakurtzea entretenigarria, aberasgarria, ezagutza irakitzeko tresna dela; eta ez dakit zenbat alderdi onuragarri dituela entzuten dut. Eta baieztapen hori modu absolutuan egiten da. Irakurketa sustatzeko bultzatzen diren kanpainen mezua izaten da irakurtzea komenigarria dela: egunkariak, aldizkariak, eleberrak, saiakerak... berdin da zer, irakurtzea da kontua.

Baina nola izan daiteke osasungarri, adibidez, historia modu faltsuan berrikustea helburu duten saiakerak irakurtzea? Aberasgarri ote da gezurrez eta objektibotasun minimorik gabe argitaratzen diren egunkariak jarraitzea? Nola izango da onuragarri ospea meritu bakartzat daukaten pertsonaiek idatzitako liburuak irakurtzea?

Hori uste dutenei nire gomendio partikularra: irakurtzea bada koska, Madrilgo Casa de Campora jo, baina ez Liburu Azoka egiten den lekura, ondolan dagoen epaitegi berezi bate-

ko egoitzara baizik. Eleberrien izenburua, 18/98. Editoriala, Espainiako Auzitegi Nazionala. Osagaiak ez dira edonola: 207.000 orrialde, 600 liburuki, 59 pertsonaia, hainbat elkarte eta enpresa, eta onena, irudimen eta fantasiarik gaita dago. Teoria simple bat oinarritzat hartuz (ideologia jakin bateko jarraitzaileak automatikoki erakunde armatu bateko partaideak omen dira) argumendu osoa garatzen du: bi egunkari eta irrati bat itxi, atxilotetak, torturak... denetarik. Idazlea ez da makala, pertsonaia ospetsua

**"Nobela fikziozkoa bada ere, bere ondorioak jadanik oso errealek izan dira"**

bera ere, epailea, baina liburuaren tamaina ikusita, "beltzen" laguntza izan duena, kasu honetan berdeak izan badira ere. Zeinek gehiago eskaini? Bitxikeria txiki bat: nobela fikziozkoa bada ere, bere ondorioak jadanik oso errealek izan dira eta, tamalez, eleberriko protagonistentzako zein gizarte honetako zati handi batentzako oso mingarriak.

Zalantzarik gabe, *makropanfleto* hori, sutara.

## HAUGIROA!

MINIMOA **2 °C**  
Zapatua, 19

MAXIMOA **16 °C**  
Astelehena, 21

ASTEKO EURIA (l/m<sup>2</sup>) **22,8 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 16	12 °C	9 °C	14,1 l/m <sup>2</sup>
Eguena, 17	12 °C	9 °C	8,7 l/m <sup>2</sup>
Egubakoitza, 18	12 °C	7 °C	- l/m <sup>2</sup>
Zapatua, 19	16 °C	2 °C	- l/m <sup>2</sup>
Domeka, 20	15 °C	4 °C	- l/m <sup>2</sup>
Astelehena, 21	16 °C	7 °C	- l/m <sup>2</sup>
Martitzena, 22	12 °C	3 °C	- l/m <sup>2</sup>

San Juan auzoan jasotako datuak

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33  
20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA  
Edu Mendibil  
ERREDAKZIOA  
Aintzane Irizar  
Irati Agirreazaldegia  
MAKETAZIOA  
Maitena Arana

PUBLIZITATEA  
Mireia Larrañaga  
KOLABORATZAILAK  
Luis Mari Agirre  
Juan Martin Elexpuru  
Miguel Angel  
Elkoroberebizar

LEGE-GORDAILUA  
SS-50/91  
ISSN  
1130-6599  
TIRADA  
8.680 ale

Goiena  
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Bergarako  
Udala



Antzuolako  
Udala



Elgetako  
Udala

# Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005eko azaroaren 25a / 264. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

## Santa Zeziliaren ospakizunetan, Luis Anduaga omenduko dute

AINTZANE IRIZAR

**Oraingo asteburuan ospatuko dute herriko musikariek Santa Zezilia euren zaindariaren eguna. Zapatuan, Garua taldearen emanaldia izango dugu; domeka goizean, berriz, Luis Anduaga musikariari omenaldia egingo diote, meza nagusian.**

Santa Zezilia eguna martitzenean, azaroak 22, izan zen arren, ospakizun gehienak asteburuan egingo dituzte. Martitzenean, Txistulari Bandaren kalejira izan genuen.

Zapatuan, 18:30ean, Antzuolako basilikan, izango dugu aurten Santa Zezilia eguna ospatzeko kontzertua. Garua taldearen emanaldia izango dugu; hiru musikariek osatzen dute talde hori: Gorka Herrosak (akordeoia), Txema Garciak (klarinetea) eta Daniel Arroiabek (gitarra). Tango musikan oinarritutako musika egiten du Garua hirukoteak; nabaria da, baina, jazzaren eta musika klasikoaren eragina ere euren musikan.

Azkeneko bi piezak Antzuolako abesbatzarekin batera eskainiko dituzte. Azkeneko piezak Salvador Olabarriak bakarlarri moduan jardungo du.

### ANDUAGARI OMENALDIA

Santa Zezilia eguneko ospakizunak osatzeko, domekan, meza nagusian, Luis Anduaga parrokiako koroaren zuzendari izandakoa omenduko dute. 11:30ean izango da meza, eta Antzuolako abesbatzak eta parrokiako koroak parte hartuko dute. Bukaeran, dantzariak eta txistulariak ere jardungo dute omenaldi horretan. Bertsoaren bat entzuteko aukera ere izango dugu.

Berrogei urtetik gora egin ditu Luis Anduagak elizako koroa zuzentzen. Urte horietan guztietan koroaren eta musikaren alde egindako lan hori eskertu nahi diote omenaldiarekin. Orain dela hilabete gutxi laga dio zuzendari postuari, eta Bittor Arbuluk hartu du lekukoa. Dena dela, domekero mezetara, korura, joaten jarraitzen du.



Musikarien eguna martitzenean izan zen arren, asteburuan ospatuko dute.

GOIENKARIA

### LUIS ANDUAGA/PARROKIAKO ABESBATZAKO ZUZENDARIA IZANDAKOA


*“Garai baten lan handia egiten genuen abesbatzan; eta orain, berriz, hiletetan bakarrik abesten dugu”*

A.I.

**P**ozik baina urduri topatu dugu Luis, omenaldia dela-eta. 40 urte hauetan lan handia baina gustukoa egin duela kontatu digu. Herriko beste askoren moduan, Simonekin hasi zen musikan.

### Zela gogoratzen dituzu koroaren zuzendari garaia?

Garai baten lan handia egiten genuen abesbatzan eta garai onak ziren; entseguak egiten genituen eta jaiero hainbat mezatan abesten genuen. Jai berezietan ere beti abesten genuen. Abesbatza ona zegoen, gainera, orduan. Orain, berriz, hiletetan bakarrik abesten



dugu, eta horretarako entsegu beharrik ere ez dugu izaten.

**Eta zela hasi zinen musikan?**

Tiple moduan hasi nintzen, ume-umetan; lehenengo, Are-

txabaletako organo jotzaile batekin. Gero, berriz, Simon Artolazabalekin, herriko gehienok bezalaxe.

**Antzuolatik kanpo ere abestu izan duzu, ezta?**

Bai. Bergarako Orfeoiarekin, esaterako, ibili izan naiz, beharra zutenean; ahots baxuak behar zituzten. Madrilen egon ginen behin.

**Zela hartu duzu omenaldia egingo dizuten albistea?**

Pozik hartu dut, baina, era berean, urduri; oso urduria naiz, eta egun hori pasatu arte, ez nago lasai. Ez nuen inola ere horrelakorik espero; ez zait sekula burutik pasatu omenaldirik egingo zidatenik, baina ilusioa egin dit.

### LABUR

#### Domekan gaztaina erre jana izango dugu plazan

Domekan, 19:00etan, gaztaina errearekin aukera izango dugu plazan, Anelkarrek eta Udalak antolatuta. Anelkarko kideek jardungo dute lanean, herritarrei euren eskuzabaltasuna eskertzeko. Trikitilariak, txalapartariak eta ezustekoren bat ere izango ditugu.

#### Zine emanaldiak gaur, egubakoitza, eta etzi, domeka

Neguko zinema emanaldiak egiten jarraitzen du Udalak, Orlan etxeko aretoan. Gaur, egubakoitza, 22:00etan, Anne Louise eta Anton filma ikusteko aukera izango dugu. Domekan, berriz, ume eta gazte txoendako film bat izango dugu: Tintin eguzkiaren tenpluan. 16:30ean izango da hori.

#### Pausoka elkarteak abenduaren leian egingo du batzarra

Urteko batzar orokorra egingo du Pausoka gurasoen elkarteak datorren egunean, abenduak 1. 18:30ean izango da batzar hori, Herri Ikastetxeko areto nagusian. Hantxe, zuzendaritza batzordea berrikotuko dute. Gero, batzorde berri horrek presidentea aukeratu beharko du.

#### Euskal produktuen katalogoa banatuko dute

Gabon jaietara begira, euskal produktuen katalogoa banatuko du Udalak datorren astean. Euskal Herri osoan banatuko dira katalogoak. Euskarazko diskoak, bideoak, jostailuak, liburuak eta beste hainbat produktu jasotzen dira katalogoan. Helburua da gurasoek opariak egiterakoan ere euskara kontuan hartzea.

HIRIGINTZA

# Sagasti auzoa saihasbidearekin lotuko dute datorren urtean

AINZANE IRIZAR

Datorren urte hasieran, Sagasti auzoko etxebizitza berrien urbanizazio lanak amaitzen dituztenean, herrirako sarrera eta irteera berriak izango ditugu. Bergara aldera irteteko eta Zumarraga aldetik gatzenean Sagastira sartzeko aukera emango digu lotune berriak.

Sagasti auzoa handitzen doa, pixkanaka. Gaur egun, bost etxebizitza multzo daude, eta beste bi eraikitzen dihardute. Aurrera doaz etxebizitza berri horien lanak, eta laster amaituko dituzte. Etxebizitza eraikitze lanean batera, urbanizazio lanean ere egin dute aurrera.

Udaleko arduradunak Diputazioarekin harremanetan daude, eta oraindik guztia zehazteko dagoen arren, Sagasti auzoa saihasbidearekin lotuko dutela badakigu. Lotura hori ez da osoa izango; Zumarraga aldetik gatzela Sagastira sartzeko aukera izango dugu, baina, ez Bergara aldetik gatzenean. Bestalde, Bergara aldera irteteko aukera ere emango digu



Datorren urte hasieran egingo dute lotune berria.

lotune berriak, baina, ez Zumarraga aldera irteteko aukera.

Kontua da Bergara aldetik gatzela Sagastira sartzeko eta

Zumarraga aldera irteteak erreiak gurutzatzea eskatzen dutela, eta horrek arrisku handia eragingo luke.

## HERRI MAILAKO PILOTA TXAPELKETA

### PARTIDUAK

**Azaroak 26**  
09:15, Mikel Urtzelai eta J. Agirrebeitia - Patri Bideluze eta Andoni Balerdi  
Ondoren, Andoitz Aranburu eta Iker Irizar - Luis Larrea eta Jon Aranguren  
Ondoren, Jon Arregi eta Eneko Zabaleta - Mikel Bargiela eta Jon Pagaldai  
Ondoren, Juan Simon Aristi eta Jose Manuel Aranburu - J.M. Iturbe eta J.M. Mendizabal

### EMAITZAK

Mikel Saralegi/Josu Agirrezabal- Joseba Lezeta/Juanjo Aranburu .....18-4  
Aitor Aranguren/Felix Agirre- Erik Lizarralde/Joseba Azkarate .....18-7  
Patri Bideluze/Andoni Balerdi- Andoitz Aranburu/Iker Irizar .....4-18  
Luis Larrea/Jon Aranguren- Mikel Muguruza/MiguelMariJauregi .....18-14



## Ate automatizatua jarri dute hilerrian

Aurreko astean jarri zuten herriko hilerrian ate automatizatua. Ate hori goizeko bederatzietan ireki eta 20:00etan itxi egiten da, automatikoki. Dena dela, itxi baino lehentxeago abisua ematen du, soinu baten bitartez, alarma antzerako soinu batekin. Sarre-rako atean ere jarri dute oharra. /A.I.

## HERRITARREN HITZA / Jone Lete · Irakaslea

### Txapelketa gori-gori

Euskal Herriaren kultura ezin dut ulertu bertsolari-tzarik gabe, are gutxiago Euskal Herriko Txapelketa Nagusia pil-pilean den honetan. Nahiz eta urtean zehar bertso saioak entzuteko aukera izan, ez da gauza bera txapelketak sortzen duen morboa. Aurten jada bi finalisten izenak badauzkagu: Egaña eta Lujanbio.

Txapelketaren gaztetasuna saioetan oso nabaria da. Jende gazte pila bat dabil, baita normalean joaten ez direnak ere eta hori bertsolariarentzat garrantzitsua da. Hala ere, maisu handia hor dago oraindik eta gerra

ematera dator. Egaña baietz esan dio txapelketari, eta txapela oholtza gainean galtzea nahiz duela dio. Posible al da hori? Gai izango dira gainontzeko zazpi bertsolariak Andoniri txapela kentzeko? Nahiago nuke! Ez Andoni ez zaidalako gustatzen, maisu bati ikasleek txapela kentzea polita izan daitekeelako.

Are politagoa kentzen diona neska bada. Posible da, ezta? Ni



**“Gaztetasunak, freskurak eta indarrak irabaziko du txapelketan”**

Egia da bertsolariarentzat oso garrantzitsua dela finalera

horretan nago. Finalurrekoen lehen buelta amaituta nahiko argi dagoela uste dut nortzuk izango diren finalista, baina ez naiz ausartzen izenak ematera. Txapelketa aurretik egindako kinieletan nik behintzat bi bertsolariarekin huts egin nuen. Baina tira, bertsolari gehiago irtengo dira.

iristea, plazak ekarriko dizkielako, eta horregatik jokatzeko dute hainbeste. Txapelketa txapelketa da. Aurrera jarraitzen dutenentzat saria izango da, eta jarraitzen ez dutenentzat pena. Bertsolari batzuen helburu nagusia ez da finalera iristea, finalurrekotara iritsi eta saio on bat egitea baizik; hori batzuk lortuko dute eta beste batzuk ez. Azken finean, txapelketan beti egongo dira irabazleak eta galtzaileak. Txapelketan norbaitek irabazi behar badu bertsolariaren gaztetasunak, freskurak eta indarrak irabaziko du. Bertsolari-tza sasoiko dago.

## KIROLA

### PARTIDUAK

#### FUTBOLA

**Azaroak 26**  
15:30: Antzuola-Soraluze (Erregion.)  
17:45: Antzuola-Burumendi (Gazteak)

### EMAITZAK


#### FUTBOLA


Antzuola 1 Ikasberri 1 (2. erreg.)

#### PILOTA

Gipuzkoako Kluben Arteko Txap.  
Bergara-Olalde (Infantilak) . . . . 11-18  
Olalde-Aurrera Saijaz (Gazteak) . 18-22  
Zazpi Iturri-Olalde (Nagusiak) . . 22-18  
Olalde-Oiangua (Paletaz) . . . . . 34-35

**LARREA**  
**TABERNA**  
Kalebarren 17  
ANTZUOLA

**MUJIKA HARATEGIA**  
  
**Berezitasunak: Etxean hazitako zekorrek eta oilaskoak**  
Kalebarren, 1.  
ANTZUOLA  
Tf. 943 76 64 34

**II** SUKALDEKO ALTZARIAK  
**Harizki**  
  
**MUEBLES IGEA**  
Sukalderako eta bainurako altzariak  
Altzari rustikoetan espezializatuak  
Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

# Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2005eko azaroaren 25a / 246. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegi • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

## Saihesbideko lehen zatia hilaren 30ean inauguratzekotan dira

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Hogeita hamar urtez zain egon ostean, elgetarren ametsetako bat egia bihurtuko da aurki. Saihesbideko lehenengo zatia inauguratzekotan dira. Kiroldegi aldamenean egin duten biribilgune berritik Kanpanzartik datorren bidera bitartean doa zati hori.**

Laugarren proiektuarekin lortu dute elgetarrek hainbat aldiz eskatutako saihesbidea begi bistan ikustea. Izan ere, horren aurretik saihesbidea egiteko beste hiru proiektu aurkeztu zituzten, baina garai bakoitzeko arazoak zirela medio ez zuten aurrera egin.

Otsailaren amaieran saihsbideko lehen harria ipinita hasi ziren lanean, eta hil honen amaieran, azaroaren 30ean, inauguratzekoak dira lehen zatia.

### EZAUGARRIAK

Saihsbidearen lehen faseak 500 metroko luzera izango du. Kanpanzartik datorren bidean hasi eta herria kanpotik zeharkatuz kiroldegiaren ondoan egingo duten biribilguneraino 411 metro izango ditu eta beste 95 biribilguneetik Eibar alderako adarrean. Adar hori bigarren faseko lanei dagokie eta zati horren trazadurari datorren urtearen hasieran ekingo diotela esan digu alkateak. Biribilgunean hasi eta Eibar bidea gurutzatuta Bergarako bidearekin elkartuko da saihsbidea, Arantzeta bihurgunea baino gorago.

Saihsbideak bi errei izango ditu, bakoitza 3,50 metroko zabalera eta %8,80ko gehienezko maldarekin.

Biribilguneak, berriz, 23 metroko erradioa izango du. "Biribilgunea oso handia da eta asteon txukuntzen jardun dute; hantxe 1.000 landaretik gora sartu dituzte", esan digu Basaurik.


Patxi Basaurik esan digunez, "Foru Aldundiko teknikarien esanetan, Gipuzkoako saihsbide eta biribilgune onenetarikoak dira, bai diseinuz eta baita kalitatez. Gainera, biribilgunean eta goiko bidegurutzean ere oso argiztapen egokia ipini dute".

Saihsbideko lanekin batera, kiroldegi ingurua erabat aldatu da. "Orain, frontoi ingurua egokitzea falta da, baina hango obrak amaitu artean ezingo da erabat txukundu. Hala ere, saihsbidearen inaugurazio egunerako ingurua txukun ipintzen saiatuko gara. Gainera, hesiak ipini dituzte espaloietan, eta horrek paseorako bide egokia ekarriko du Pagatzara joateko".


### HERRI BARRUKO TRAFIKOA ARINDU

Oraindik ez dago kalkulatu zentzat denbora aurreztuko duten ibilgailuek saihsbidetik joanda. Izan ere, herri barruan dauden semaforoak ekidingo dituzte gutxienez. Baina Patxi Basauri alkatearen esanetan, "garrantzitsuena ez da gidariak denbora aurrezte, herri barruko trafikoa arintzea baizik; eta hori saihsbidea zabaldua lortuko dugu. Izan ere, Salvador kalean sekulako nahasmena sortzen da".

Inaugurazio egunerako bestalde, saiatuko dira herriko semaforo guztiak sinkronizatzen biribilgunean arazorik ez sortzeko. "Artekaleko semaforoa ere asteon ipini dugu martxan. Berde egongo da, baina oinezkoak pasa behar direnean botoia sakatu beharko dute errepidea gurutzatzeko", esan du alkateak.



Kiroldegi aldameneko biribilguneak 23 metroko erradioa du.



Kanpanzarko bidearen amaieratik biribilgunera 411 metro daude.

### Enpresetara joateko oinezko bidea

Saihsbidea zabaldu ostean, lantegietara joan behar duten oinezkoek bidea errazteko Udalak espalo berria egiteko asmoa du. Zabala Hermanos lantegiaren eta saihsbidearen artean egingo dute espaloia datozen hilabeteotan. Beraz, espaloitik oinezkoak biribilgune berriaren ingurura joango dira, eta zebrabidea gurutzatuta Pagatzako ezkeraldera doazen eskaileretara joan ahal izango dira. Gainera, biribilgunearen inguruko espaloiak hesiz babestu dituzte oinezkoendako egokituz.

### Salvador kalea urtarrilean itxiko dute

Saihsbidea ireki eta hurrengo pausoa Salvador kalea ixtea da. Urtarrilean egingo dute hori, Salvador kalearen hasieran pibotak ipinita. Garajeak dauzkatenek Arrasateko bidetik sartu eta irten beharko dute. Hori bera egin beharko dute zama lanak egiten dituzten ibilgailu txikiek. Kalean bertan buelta eman ezin duten ibilgailu handiek baimen berezia eta giltza izango dituzte pibotak zabaltzeko. Asmoa da aurrerago Salvador kalea oinezkoendako gertu ipintzea.

### Bergara, Elorrio eta Eibarrera berdin

Hainbat herritatik datozen ibilgailuek egiten dute bat Elgetan, eta gidariendako baliteke hasieran nahasmena izatea bide berria.

Saihsbidea Arrasateetik datozenek edo hara joan nahi dutenek baino ez dute erabili behar.

Bergaratik Eibarrera eta Elorriora joateko, Eibartik Elorriora edo Bergarara joateko, eta Elorriotik Bergarako edo Eibarrera bidea egiteko orain arte bezala joan behar dute gidariak; kasu batzuetan biribilgune berritik igarota eta bestetan arku pasatuta.

## LABUR

### Jazz kontzertu didaktikoa gaur gauean Espaloian

Joan den asterako iragarritako kontzertua, gaur, barikua izango da. Akitania eta Euskal Herriko musikariak elkartzen dituen Pirineos Jazz Orchestra taldeak eskainiko du 22:30ean Espaloian. *Del tam tam al tom tom* ikuskizuna orubete inguruko kontzertu didaktikoa da.

### Hiru talderen kontzertua gaur gaztetxean

Gaur, barikua, kontzertua izango da gaztetxean 22:30ean. Hiru taldek jardungo dute: Mungiako Sirhoko taldeak ska reggae core doinuak egiten ditu; Friend Diary ere Mungiako taldea da eta hardcore melodikoa egiten du; eta Gasteizko Diskrepok punk rock doinuak eskainiko ditu.

### Abenduaren 21ean ikastaroa izango da KZgunean

KZguneak abenduaren 21erako *Kontrata ezazu zure asgurua* izenburupean ikastaro bat iragarri du. Orubeteko saioa izango da 18:00etatik 19:00etara eta euskaraz emango dute ikastaroa kultura etxean. Egun horretan KZguneko irakaslea egongo bestelako zalantzak argitzeko.

### Eguenean Alberto Iñurrategiren ikus-entzunezkoa

*Gure Himalaya* ikus-entzunezkoa emango du abenduaren 1ean, eguena. 20:00etan izango da emanaldia, Espaloian. *Gure Himalaya* muntaiaren mendizale aretxabale-tarrak anaia Felixekin aurrez bizitako esperientzien kontakizuna egingo du; betiere, gaurko mendizaletasunaren ikuspuntutik begiratuta.

EGUNEKO ZENTROA

# Zapatuan urtebete Eguneko Zentroa zabaldu zutela

I.A.  
Eguneko Zentroa abian ipini zutenetik urtebete pasa dela eta, ospakizuna egingo dute bihar, zapatua. Egoitza herritarrendako zabalik izango da goizean, eta urtebeteko balorazioa egingo dute hantxe.

Udaleko arduradunek eta zentroaren kudeaketan jarduten duen GSR enpresako ordezkariak zerbitzuaren balorazioa egin

go dute eta etorkizunerako aurreikusitako zerbitzuak aurkeztuko dituzte.

11:30etik 13:00etara Eguneko Zentroko ateak zabalik izango dira egoitza bisitatu nahi duten guztiendako, eta aurkezpenaren ostean luntxa izango da.

**GONBIDAPENA**

Urtebeteren ostean, Udaleko Ongizate Zerbitzutik esan digute balorazio positiboa egiteko moduan daudela: "Epe honetan

altak eta bajak egon dira zentroan, eta gure asmoa da aurrerantzean ere mugimendua izatea". Euren nahia da herritarrei gerturaz zerbitzu hori: "Orain arte herritarrek baino inguruko adinekoak egon dira gehiago; beraz, elgetarrei gonbita egin nahi diegu zentroa ezagutzeko, eta beharra izanez gero hara joateko", esan digute.

Aurrerantzean nahi dute zerbitzua adinekoen behar zehatzetara egokitu.



Domingo Iturbe kaleko Eguneko Zentroan adineko lau lagun daude gaur egun.



## Mendi bizikletan urtegi inguruan

Kirola sustatzeko taldeak hainbat irteera antolatu ditu ikasturtea hasi zenetik. Azkena, Uribarri Ganboako urtegi ingurura mendi bizikletan egindakoa. Guraso eta ume, guztira 30 lagunek hartu zuten parte eta antolatzaileen esanetan, "guztia primeran irten zen". Antolatutako kirol ekintzek izan duten harrera ikusita, datorren urterako ere antolatuko dituzte jarduerak. Horretarako bilera egingo dute, baina eguna zehazteke dago./I.A.

## TEKNOLOGIA

# GPS antena ipini dute Herri Eskolan

I.A.

Elizako kanpandorrean ipintzekoak baziren ere, Herri Eskolako teilatuan ipini du Gipuzkoako Foru Aldundiak GPS antena. Baina argi adierazi nahi izan dute antena horiek datuak jasotzeko baino ez direla, eta osasunari ez diotela kalterik egiten. Guztira, horrelako lau antena daude Gipuzkoan eta horietako bat Elgetan. Arrazoa da leku estrategikoa dela GPS aparailuek seinaleak jaso ahal izateko.

**KOKAPEN ZEHATZA**

GPS antenak 28 sateliteren seinaleak jaso eta norbanako erabiltzaileei zein erakundeei bidaltzen dizkie.

Hain zuzen ere, datu horiek erabiltzen dira topografia lanetarako zein ibilgailuen kokapen zehatzak jakiteko, besteak beste.

Orain arte datuak Internet bidez jaso izan ditu erabiltzaileak; baina aurki sistema berri bat ipiniko dute informazioa telefono bitartez unean bertan jaso ahal izateko.




Elizako kanpandorrean ipintzekoak ziren antena eskolako teilatuan jarri dute.

**Aperribay, s.l.**  
Marmoldegi eta granitoak  
Pagatza indus. z/g.  
Tel. eta faxa: 943 78 90 21  
**20690 ELGETA**

**RECYDE, S.A.**  
Pagatza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa  
Tel.: zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10  
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es

**AENOR ER**  
Enpresa Erregistratua  
ER-0182/2/95  
ISO 9002  
QS 9000  
ISO/TS 16949



BAILARAKO OPTIKA

**ITZIAR UGARTE**

Optika Audiometria Betaurrekoetan azken joerak

Arrasate pasealekua 35, ARRASATE. 943 08 26 87  
Eskola Politeknikoaren ondoan

# Oñati

OÑATI / Egubakoitza / 2005eko azaroaren 25a / 29. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oihana Elortza • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: oinati@goiena.com • Lege gordailua: SS482/05

## Iaz beste federatu dira eski denboraldirako

OIHANA ELORTZA

Izan ere, 50 bat lagun federatu dira eski denboraldirako. Aloña Mendiko eski sailak tramitatu ditu federatuen agiriak, eta aurten ere forfaiak merkeago eros daitezke Oñatin. Bestalde, dagoeneko zabalik dago mendi eta eski materialaren azoka.

Aloña Mendi Kirol Elkarteko eski sailak datorren eski denboraldirako federatuen agiriak tramitatu ditu azken bi asteotan. 50 bat herritarrek egin dute, joan den urtean beste.

### ESKI IRTEERAK

Baqueira Beret-era egingo dituzte aurten irteerak. Hiru egingo dituzte guztira: urtarrilaren 13tik 15era, otsailaren 10etik 12ra eta martxoaren 17tik 19ra. Pazko asteen ere egingo dute urteroko irteera berezia; aurten, Tignes-era joango dira. Abenduaren 13tik aurrera eman behar da izena irteeretara joateko, Aloña Mendi tabernan, 18:00etatik 19:30era.

Bestalde, forfaiak merkeago eros daitezke Oñatin Aloña Men-



Baqueira Beret-era eta Tignes-era egingo dituzte irteerak.

diri esker. Astún, Candanchú eta Formigal estazioetan eskiatzeko forfaiak merkeago eros daitezke Mendizabal kirol dendan eta Arrasateko Sugar dendan.

### MATERIALAREN AZOKA

Mendirako zein eskiatzeko materiala duen azoka jarri dute egun hauetan Aloña Mendiko egoitzan. Gaur itxiko dute, 21:00etan.

## “... TXORIXAK GALDUTA EGOZENIAN”

## ‘Gonza’ren filma bi aldiz emango dute

O.E.

Jose Mari Gonzalez Gonzaren azken lana ikusi ahal izango da asteburuan Oñatin. “...txorixak galduta egozenian” da haren azken lanaren izenburua. Dokumental itxura duen filma da Gonzaren lan hori, eta baserrian dago girotuta.

Bi aldiz emango dute film hori Oñatin: egubakoitzean, kultura


etxeke zinema aretoan, 19:30ean; eta domekan, gaztelekuan, 19:00etan. Hantxe izango da Gonza, filmaz berba egiteko emanaldiaren ostean.

### BANDABARDO ETA XAKE LEHIAKETA

Beste bi hitzordu ere badaude asteburuan gaztelekuan: zapatuan, Bandabardó talde italiarraren kontzertua, 23:00etan, eta domekan, xake lehiaketa.



09:00etan hasiko da xake txapelketa, domekan, gaztelekuan.



## Pinturak eta eskulturak

Jon Balentziaga artista bergarraren lanak daude ikusteko egun hauetan kultura etxeke erakusketa gelan. Guztira 25 margo eta beste zortzi eskultura daude.

Pinturan, olio eta akua-relak erabili ditu. Pinturen markoak ere berak egin ditu eta forma bitxia dute batek baino gehiagok. Eskulturak egiteko, berriz, pinuaren egurra eta burdina erabili ditu. Erakusketa azaroaren 27a arte dago zabalik kultura etxean, egunero, 18:30etik 20:30era./O.E.

## LABUR

### Umeendako ikuskizuna eta gaztaina erre jana egongo dira zapatuan Larrain Gainen

Umeendako ikuskizuna eta gaztaina erre jana antolatu dituzte zapatu arratsalderako Larrain Gain elkarteak. Hain zuzen ere, 16:30ean hasita, Euskal Telebistako *Triki, traka, triki, tron* saioan agertzen den Elvi sabel-hiztunak ikuskizuna eskainiko du. Ondoren, gaztaina erre jana egongo da batzen diren ume guztiendako.

Larrain Gain gastronomia elkarteak 25 urte bete ditu aurten, eta umeekin ere ospatu nahi dute urteurrena.

### Anorexia eta bulimiari buruzko informazio mahai bat jarriko dute zapatuan azokan

Anorexiari eta bulimiari buruzko informazio mahai bat jarriko du ACABE elkarteak zapatu goizean merkatu plazan. 11:00etatik 14:00etara jarriko dute mahai, eta bi gai horiez gain, ACABE elkarteari buruzko informazioa ere emango dute. Eta eguaztenez, hitzaldia antolatu du Udaleko Prebentzio Sailak. Nerabe eta gazteen arteko droga kontsumoa da gaia, kultura etxean, 18:30ean.

2000 etxe jabeek errentan eman dute euren etxebizitza hutsa Eusko Jaurlaritzako BIZIGUNE programaren bitartez.

## Eman errentan zure etxea beldurrik gabe !


Eusko Jaurlaritzako Visesa arduratzen da gestio osoaz: zuri ordaindu, 5 urte barru etxea hasierako egoeran bueltatu, bizi-lagunak aurkitu... eta ondo ordainduta. Gainera, obrak egiteko 18000 euro arteko dirulaguntza interes gabeko mailegu gisa.

Jo zure udaletxera informazio eske!

**SURADESA**  
Rehabilitación urbana  
DEBAGOENA Hiri birgaltzea  
suradesalask@telefonica.net  
Tel.: 943790645  
www.debagoiena.net/suradesa

**visesa**  
VIVIENDA Y SUELO DE EUSKADI, S.A.  
[ BIZIGUNE ]

**EUSKO JAURLARITZA**  
GOBIERNO VASCO  
ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIAK SAILA  
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES




ANTZUOLAKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE ANTZUOLA



Aretxabaletako  
Udala




ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON




BERGARAKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE BERGARA




ELGETAKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE ELGETA



eskoriatzako  
udala



LEINTZ GATZAGAKO  
UDALA



OÑATIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OÑATI

## Abenduaren 2tik aurrera ZABALIK

**ORMAZABAL**  
FISIOTERAPIA ZENTROA

Unai Ormazabal  
Fisioterapeuta

- Bizkarreko mina
- Bihurrituak
- Tendinitisa
- Masajeak
- Erreuma
- Etxeetara fisioterapia
- Errehabilitazioa

Telleria 6 bis, 11 bulegoa • Labegaraieta industrialdea • 20570 Bergara • ormazabalfisioterapia@yahoo.es  
TXANDA HARTZEKO DEITU: 943 76 53 35 / 626 90 06 08

## ALBAITARIAK

**ARATZ KLINIKA (Lazpiur Roman)** Zurradero 6, behea. 943 76 70 67 / 607 48 71 19

**ETXEBERRIA Julio (Debagoieneko albitari ofiziala)** 609 54 16 13

**IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak)** Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46

## ANALISI KLINIKOAK

**LABORRA Isabel** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

## BARNE MEDIKUNTZA

**IRIGOIEN Victor** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

## DENTISTAK

**AGIRRE HORTZ KLINIKA** Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23

**ARAMBURU HORTZ KLINIKA** Telesforo Aranzadi 1. 943 76 02 46

**ASTIAZARAN SOLOZABAL** Iparragirre 1, behea. 943 76 27 95

**BERGARA HORTZ KLINIKA** Bidekurutzeta 36, behea. 943 76 05 77

**GOROSABEL J. Alberto** Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88

**CAVIGLIA Silvana** S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54

**IRIARTE Idoia** Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65

**SAINZ Ana** Herriko plaza 4, ANTZUOLA. 943 78 71 69

**TRIPALDI Enrike** Justo Garate 1. 943 76 70 76

## DIETISTAK

**ALBERDI Mireia** Olanan etxea, Herriko plaza 3, ANTZUOLA.

Ibargarai 44, BERGARA. 943 76 60 45 / 646 43 34 58

## FISIOTERAPEUTAK

**ARZAK Miren** (Jarrera-berreziketa orokorra). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

**BASTERRETXEA Maria** Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

**UNZUETA Irene** San Martin Osasundegia. Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

## MASAILARIAK

**AZPEITIA Irune** Ibargarai 44, behea. 943 76 73 43

**CASANELLAS Jabier** Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78

**ETXEBERRIA Ana** Errekalde 6, behea. ANTZUOLA. 943 76 60 13

## MEDIKUNTZA ESTETIKOA

**BENITO Isabel** Bidekurutzeta 46, behea. 943 76 52 62

## PODOLOGOAK

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA** Ikerleku Zeharbidea z/g. 943 76 07 84

**AZPIAZU Arantzazu** Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

## PSIKIATRA

**GALLASTEGI Pablo** San Martin Plaza 2, 1-ezk. 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80

**URKAREGI Pakita** (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13

**ZUBILLAGA ZABALA Marisa** (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

## YOGA

**SAMADHI YOGA** Masterreka 13, behea. 943 76 11 38 / 639 235 753

BERGARAKO  
**OSASUN GIDA**  
OSASUNEZ BIZI IZATEKO.